

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresak aurrera jarraitzeko ezinbestekoa dugu hornitzaileak izatea, gure enpresaren funtzionatzea ahalbidetuko baitute. Gure hornitzaileei esker negozio-eredua optimizatzea eta hainbat motatako baliabideak eskuratzea lortuko dugu.

Lehenengo, bizikleta enpresa batera joango gara produktuaren berri ematera eta beraien iritzia jakitera. Horrela, gure produktuan zer hobetu dezakegun jakin dezakegu eta bide batez geroz eta jende gehiagok gure produktua ezagutu.

Honez gain, Diario Vasco egunkarian iragarki bat jarriko dugu, jende askok irakurtzen baitu; hau egiteko diseinu polit eta ikaragarri bat behar dugu eta gure lagun on batek doan egingo digu



UGGASA agentziarekin kontaktuan jarri gara, gure ideiar buruz proposamen berriak entzuteko eta zerbait hobetu al genukeen galdetzeko. Badakigu enpresa honek dirurik ez duten eta ondorioz, bulegorik ez duten enpresa berriei bulego txiki batzuk uzten dizkietela. Honela, enpresa hasteko eta hazteko bulegoarekin guztia errezagoa izango liztateke, ez ginatekeelako egunero leku bat bilatzen ibili behar bertan lan egin al izateko. Agentzia honekin adostu dugu lau urtetarako tokia utziko digutela eta bertan wifi-sarea eta bulego bat izango dugu webgunean lanean jardun ahal izateko 30€-ren truke hilabetean, ura, elektrizitatea ere izateko.

Beste alde batetik, Verti izena duen enpresa batekin kontaktuan jarriko gara eta aliantzak egin ditugu, hau da, 400€ bidez, segurua emango digu.



Lehengaiak Autoliv enpresari erosiko dizkiogu gure produktua ekoiztu ahal izateko, hau da, gure hornitzailea izango da. Beharrezko ditugun lehengai garrantzitsuenetariko batzuk airbag-a eta sentsorea dira eta bertan aurkitu ahalko ditugu. Enpresa hau aukeratu dugu kalitate oneko produktuak saltzen dituztelako eta gainera, prezio on batean dagoela esan dezakegu. Horrez gain, materialak kantitate handi batean hartzen baditugu, izugarriko eskaintza egingo digute prezioaren aldetik.

Autoliv

Azkenik, denda fisikoaz gain, wegune bat sortuko dugu, izan ere, jende gehiagora iritsiko garela uste dugu webgunearen bidez. Ondorioz ez dugu alokairua ordaindu behar. Espainia mailatik zabalduko garenean, kaskoak garraiatzeko garraio gehiago beharko ditugu,

horregatik Stop and Go Transporters enpresarekin ere kontaktuan jarri gara, Europa osoan zehar garraiatzeaz arduratzen direlako.

